



DANI BLANCO

**Garbiñe  
Biurrun  
Mancisidor**



LEGELARIA

## Ai ama! Legea

EZ DUT ESANGO legearen eta legitimitatearen arteko harremana gure egunerokotasunean kezka berezia denik, ezta zuzenbidearen eta eskubideen arteko lotura ere. Baina, errealitatea ikusita, argi dago gai honek uste baino eragin handiagoa duela. Beraz, oihartzun handiagoa eman behar-ko litzaioke.

Ez da, inolaz ere, gai berria. Aspalditik kezkatu ditu filosofoak, legelariak eta politikariak. Eta, askotan beharbada ohar-tu gabe, herritarrok ere. Zeren eta, nork ez du noizbait hausnartu horri buruz? Nork ez du erabaki behar izan legeak zioenaren eta bere kontzientziaren artean? Nork ez ditu arau-hauste batzuk ulertu eta onartu eta biziki errefusatu beste batzuk. Galdera-adibide gehiago bota nitzake, baina nahiko adierazgarriak iruditzen zaizkit horiek.

Zergatik aipatzen dut gai hori? Azken egunotan hainbat gertaera azpimarragarri –politikoki eta sozialki oihartzun handia izan dutenak– pasatu direlako. Beharbada gaiari lotutako gertaera gehiago egongo ziren, baina nik hiru hauek ekarriko ditut orrialde honetara, kronologiaren arabera ekarri ere.

*Horren justua baldin bazen Mikel Cabiecesi emandakoa, zergatik ez zen erabaki eta idatzi beste arauak erabakitzen eta onartzen diren prozeduraz? Eta zergatik ez zioten erakunde publikoek eman?*

Lehenik, Euskadiko Auzitegi Nagusi-ko Lan Arloko Sailak eman duen autoa, konstituzio kontraktotasun arazoa planteatuz, Espainiako Konstituzio Auzitegiari terrorismo delituengatik preso egondako pertsonak askatzerakoan langabezia subsidioa jasotzeko betekizunak gogortu dituen legearen aurka. Kasu horretan, legea onartu da, baina zernolako: Auzitegiaren arabera, oinarri-zko eskubide batzuk urratzen dituen, hala nola: babes judizial eraginkorra, segurtasun juridikoa, birgizarteratze helburua eta berdintasuna. Halere, Konsti-

tuzio Auzitegiak gaia ebatzen ez duen arte, indarrean egongo da eta aplikagarria izango da. Justua izan ala ez?

Bigarrenik, oso esparru interesgarria ere: idatzi gabeko legeak. Denok ezagutzen ditugu horrelakoak: ohiturak. Ohiturak dira gure zuzenbideak onartzen dituen ez idatzitako arauak; gizarteak sortzen ditu eta kasu askotan indar juridiko handia dute. Baina, noski, Mario Fernandez jauna ez zen ohituraz ari; ez zait horrela iruditu niri. Beste lege batez ari zen: batzuek –auskalo nortzuek– onartutako legea. Hori bai segurtasunik eza! Nork daki nork daukan ez idatzitako lege horretan aitortzen diren abantailak eskuratzeko eskubidea; nork daki nolako baldintzak bete behar diren horrelako abantailak jaso ahal izateko; nork daki non, zer leihatilatan eskatu behar diren eskubide horiek... Eta, horren justua baldin bazen Mikel Cabiecesi emandakoa, zergatik ez zen erabaki eta idatzi beste arauak erabakitzen eta onartzen diren prozeduraz? Eta zergatik ez zioten erakunde publikoek eman? Eta beste herritar batzuek horrelako abantailarik jasotzeko eskubidea dutela uste badute, norengana zuzendu behar dute hori eskatzeko?

Azken gertaera, Angel Toña Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuari lotuta dator. Bizkaiko Lurralde Auzitegiak 18 hilabeteko gaitasun-gabetzea ezarri dio enpresa baten hartzekodunen konkurtso batean ordainketak egiterakoan lehentasuna eman zielako langileen kredituei Gizarte Segurantzarenen aurretik, enpresa salbatu nahian, nahiz eta epaitegiek behin baino gehiagotan erabaki zuten konkurtso-administrazioa gaizki ari zela. Hori ere kasu berezia, legea urratu baita, bere hitzetan behintzat, baina nolabaiteko justizia egin ere bai. Bestela, entzun ezazue sindikatuek zer dioten. Eta, legea urratzea, oso justua iruditzen bazaigu ere, onargarria al da? Edo legea derrigorrez bete behar da, injustutzat jotzen badugu ere?

Nola uztartu araua eta justizia? Zer egin zuzenbide injustuaren aurrean? Batzuetan, galderak besterik ez dauzkat. ■